


# ANAITASUNA

263. zenb.

1973.eko urriaren 31koa

Pelota, 4 - 1.º - Bilbao-5  
Tel. 23 74 49 - Apart. 495

## Ogibideak buruhauste direnean



Ikusia dago, langilearentzat ez dela batere gozo, ez lana ez eta lanak sostengatu behar duen bizitza. Oraindainokoa aski\* zitala gertatu zaio gizonari ogia irabazi beharra. Eta hemen, Euskal Herrian, ere bai. Nafarroako eta Arabako bi albiste komentatu nahi nituzke orain, gaingiroki bada ere.

### ARABAREN ETORKIZUNA

Arabak ez du berehala egin bere Industri Iraultza. Ba-koitzak du bere ordu eta garaia; eta Bizkaiak XIX. mendearen barnean ongi finkatu zuen industrigintza, Araban azken hogeitau urteotan hedatu\* eta zabaldu da. Baina, beranduago izanik ere, dagoeneko\* ongi errotu da industria Araban. Eta, industrigintzarekin batean, bai eta olagintzak\* berekin dakarren langile arazoa ere. Jadanik oso osoan sartu zaigu mundu berri batean Araba. Eta Nafarroa ere bai.

Hauk\* honela, Arabako Diputazioak, beste zenbait instituziorekin elkartuta, liburu jakingarri bat prestatu du, Gobernuari eskaintzeko eta Arabako langileriaren egoera zenbait puntutan argitzeko. 50 langiletatik gora duten 186 enpresa aztertzen dira lan honetan. Aurrikuspen\* batek agertzen duenez, Gasteiz eta Araba osoa gorantz doaz jendetzaz: 1980.ean, istudio horrek dioenez, hiri-

buruak 185.772 bizilagun ukanen ditu eta probintziak 300.000 bat.

Istudio horrek esaten duenez, Arabako industria horiek 4.500 langile berri behar dituzte, beren lantokiak betetzeko. Baina, aitzitik,\* euskal industriaren gorabeharra ez da posible gertatuko oraingoz, 6.000 etxe merke falta direlako. Eskasia hauek sortuko digute berriz ere Euskal Herrian azpiproletalگو sufritu bat, eta ez noski gure gizarte zigortuaren onerako.

Makur horik\* galerazi nahirik, elkargo berri bat sortu behar omen litzateke, probintzi erakunde\* zenbaitek osatutako organismo bat, alegia.\* Istudio horrek beste eskabide batzuk ere egiten ditu: egin dadila Agurainen\* Profesio Eskola bat eta Laudion\* beste bat; etxeak ugartzeko, sor dadila behar den instituziorik; jaso daitezela urtero 2.272 bizitoki datozen hamar urteetan; ur ekartze eta janari premietarako, har daitezela komeni diren erabaki pizkorrak. Azken puntuak zera dio: «Prioridad absoluta a la concentración de trabajadores nacionales». Azken gogo hau ez dugu ongiegi ulertzen, nahiko ilun ikusten baita eta ez baitakigu noren eta zeren zerbitzutan eskatzen den hori. Dena dela, esan dezagun, berriz

# Ogibideak buruhauste direnean

ere Araba biziki interesgarri izanen dela ondoko urteetan. Eta etxekoon onerako izan dadila.

## NAFAR «PIPERZALEEN» GUDAKETA

Aurten, sekula egokitu ez zaidan aukera aipatzen izan dut. Gerratea ozta\* ozta sehaskatik edo linbotik ezagutu dugunontzat, egokiera bikaina eskaini digute Nafar nekazariak. «La guerra del pimiento» delakoaz ari naizela ohartuko zen, noski, irakurle zolia. Gudaketa bitxia izan da hauxe! Izan ere, ikusten da, nafarrek ez dutela beren irudimena galdu. Gau hartantxe frontearen aurrez aurre aurkitu nintzen, eta ez oso pozik ere. Tuteran\* galdutako denborak eta Soriatik Barcelonarakoan egindako itzuliak, hamabi orduko atzerapena ezarri zioten gure tren geldoari.\* Nafar «piperzaleek» ba zuten nonbait zer esanik. Nekazarion haserreak ziztatu\* ez banindu, ez nintzatekeen apika\* larregi\* arduratuko «piperren arazoaz»; eta Nafarroako Erriberan gau osoaren galtzeak on egin zidan. Trenbide eta kamino, dena, poxelatu\* zuten Erriberako laborariak beren traktore eta enparaduekin.\* 20 kilometrotakoa omen zen gau hartan berebil\* herronka Zaragoza eta Iruine arteko kamino nagusian.

Gero jakin dugu hobeki, nondik zetorren gure nekazarion odol beroketa. Piperraren prezioa arras\* hondatu omen da aurten. Uzta\* onak, onegiak, salmenta txarra ekarri omen du atzetik: ihazko 14 pezetatara kilo 2,50 pezetatara etorri omen da. Ezinezko salneurria, noski, nekazariarentzat. Eta honek bere kontuak aspalditik eginak zeduzkan: batez beste, arrobad\* bat lur behar da, 1.000 kilo piper jasotzeko. Eta begira zenbateraino heltzen zitzaion laborariari, 2.500 pezeta ordaindu nahi zizkieten 1.000 kilo haien kostua pezetatan:

Lurraren errenta ... ..	1.000
Erregadio eskubidea ... ..	140
Zortzi erregadialdi ... ..	250
Ongarriak ... ..	640
Landarea ... ..	750
Lur lantzea ... ..	350
Landaketa ... ..	250
Uzta bilketa ... ..	500
Zerga* eta asurantzak ... ..	210

Mila kiloren produzioa ... 4.090 pezeta

Eta nafar nekazariak, lana bai eta inolako irabazpiderik ez zutela ikustean, edo lanaren gain galera\* «sorgin» hori zutela susmatzean, ahal zutena egin zuten: kamino eta trenbideetara irten. Dirudienek, laborariok ez zeuden batere prest, inorentzat dirurik jartzeko. Esamesa\* eta agindu-maginduei jaramon\* gehiegirik egin gabe, beren ekinari heldu zioten. Geroztik jakin denez, zazpi bat pezetatan erosiko omen zaie kilo nekazariok, horretarako, bitartekoen irabaziak murriztuz. Aldez aurretik behar bezala erabili ez zuten irudimenak, larrialdian eman du nonbait berea. Eta nafar nekazariok irten dira irabazle.

ANTSO AMAIUR

dezagun, daigun  
digute, deuskue  
zaie, jake  
zaigu, jaku  
zaio, jako  
zait, jat

zeduzkan (zeuzkan), eukazan  
zeuden, egozen  
zidan, eustan  
zioten, eutsoen  
zitzaion, jakon  
zizkieten, eutsoezan



Aurrera, irakurle!

Hemen gaituzu EUSKALDUNTZEN 3. honekin, zerbait egiteko asmoz, euskaldunok geure hizkuntza nola ikas, zabal eta irakats jakin dezagun.

Lehen eta bigarren liburuei egin zaien kritika gogoan edukirik, hirugarren hau ateratzera ausartu gara.

Liburu hau, lehen eta bigarren EUSKALDUNTZEN ikasi dutenentzat edo oinbarrizko alfabetatze bat egin nahi dutenentzat egina da.

Liburu honek hamalau bat ikasgai ditu, eta bertan azaltzen dira esaldi subordinatu gehienak. Arras ongi azaltzen dira esaldiok: ikasleak, gehienik, gauza ezagunak aurkituko ditu; baina poliki poliki joko du zailago diren gauzetara. Honetaz gainera, irudiak, eskemak eta abar agertzen dira. Bigarren mailan bezala. Hiztegiaren klasifikatze bat ere egin dugu. Hitzak hizkuntzaren egiturak erabiltzeko behar ditugu, eta berek daramate egituren bizia. Hitz batzuk besteak baino garrantzitsuagoak direlarik, kontuan ukan dugu haien **noiztasuna** eta **maiztasuna**.

Ba ditu liburuak istorioak eta elkar hizketak ere. Hizkuntzak eguneroko tresna bat izan behar duenez gero, haren zerbitzua agerian jartzeko ipini ditugu istorio eta elkar hizketak.

Pertsonaiak, istorioak eta hiztegia, arrunt arruntak izan daitezten saiatu gara.

Ikas ezazu zeure hizkuntza. Hor duzu prest EUSKALDUNTZEN Hirugarrena.

Zuzenbide honetara eska dezakezu: «EUSKALDUNTZEN», Pelota 4-1.º, Bilbao-5.

## ANAITASUNA Bizkaia Hamabosterokoa.

**Zuzendari ordezko:** Imanol Berriatua.

**Bulegoa:** Pelota, 4-1.º - Bilbao-5.

**Imprimatzaile:** AMADO, Mazarredo, 35 - Bilbao-10.

**Moldatzaile:** RALI, Particular de Costa, 12-14, 3.º - Bilbao-10.

**XXI. urtea.**

**D.L.:** BI-1.753 - 1967.

# IKASTOLA IRAKASLEEN LOIOLAKO LAN EKINALDIA

Ikastoletako irakasle talde batek eraturik, irailaren 3tik 5era lan ekinaldi bat antolatu zen Loiolan. Gipuzkoako Eliz Barrutiak ikastoletarako izendatua duen delegazioak babesten zuelarik, Eugenio Arregi izan zen apezpikuaren ordezkari. Bertan 120 bat andereño eta maisuk hartu zuten parte, eta, azkeneko egunean egin zuten galdeki-zunaren erantzunei bagagozkie, oso interesgarri eta praktikotzat jo zituzten egitarauako gai guztiak.

Antolamendua ere aski ona izan zelarik, lanerako gogo aparta agertu zuen jendeak.

## EKINALDIAREN ZERTARAKOA

Ikastolak aurrera doazelarik, premiak gero eta larriago ari zaizkigu gertatzen. Euskararen irakaskintzari bagagozkie, programaketa baten beharrezana eta testu eskasia dira nabarmentzen ditugun hutsunerik handienak.

Beraz, ikastoletako euskararen arazoari eta textugintzari soluziobide batzuk urratu nahirik, hona hemen bertan landu zen egitarauaren laburpen bat.

Lehendabiziko egunean, Xabier Mendigurenek, inprentaz argitaraturik dagoen zenbait materialen berri eman zuen; eta parte hartzaile guztiek, mailaz maila elkartu ondoren, urtean zehar jasoriko esperientziak agertu zituzten, talde-arduradunen ahoz.

Bigarren egunean, euskararen programaketa bati begira eman behar ziren lehen urratsei buruz mintzatu zen X. Mendiguren, eta aditzaren mailaz mailako sailkatze bat proposatu zien andereño eta maisuei.

Ondoren, Anjel Lertxundik, hizkuntzak adierazpide bezala duen ahalmenaz eta berau lantzeko zenbait teknikaz ihardun zuen.

Arratsaldean, X. Mendigurenek proposaturiko programaketa eta eritziak aztertu ziren taldeka.

Azkeneko egunean, Erreterian talde heziketari buruz egin den zenbait esperientzia agertu zuen Itziar Idiazabalek, eta Manolo Urbietta haur kantuei buruz aritu zen.

## LANERAKO TALDEAK

Bere horretan gelditu izan balitz, zerbait faltako zukeen; noski, lan ekinaldi honek. Baina ekintzari begira pentsaturik zegoenez gero, lanerako talde batzuk sortzeaz eman zitzaion bukaera.

Zazpi lan talde sortu ziren: hizkuntzari buruz, hiru; musika, euskal historia, matematika eta gizarte gaietarako, beste lau.

Guztitara, 31 dira oraingoz lan taldeotan sarturik daudenak, eta lan taldeon koordinazio edo komuntadura X. Mendigurenen eskutan jarri da.

Esan beharrik ez dago, lan talde hauk irekiak direla eta lankide gehiagoren zain daudela. Hilabete honetan batzarre bat izanen da, taldeetako behin behineko arduradunak berresteko eta ikasaro honetan zehar burutuko diren lanen programaketa zehazteko.

## NOIZKO HURRENGOA?

Galdera honi erantzun zehatzik eman ez zitzaion arren, euskara eta beronen metodologiako ikasaldi bati jendeak zer zeritzakeen itaundu zen galdekizuneko puntu batetan. Erantzun zuten guztiek, aho batez ontzat eman ezezik, honelako ikasaldi bat behar beharrezkotzat jo zuten eta bertan parte hartzeko prest zeudela esan.

Beraz, Gabonak alderako edo Aste Santurako, berandu jeta, litekeena da era honetako ikasaldiren bat antolatzea.

Lan ekinaldi honetan garbi ikusi genuena, hauxe izan zen: arazo konkretuei soluziobideak aurkitzen saiatzeko gogo biziarena jendeak eta garteuki hartzen dutela parte honelako lan saioetan.

Azkenik, gure irakurleak jakinaren gainean egon daitezenean, esan dezagun ere, lan ekinaldi honetan eman ziren hitzaldiak, egin ziren azterketa eta esperientziak biltze eta abar, polikopiatutako liburuska batetan argitaratuko direla.


J. M. BEREZIARTUA

daude, **dagoz**  
dezagun, **daigun**  
zaizkigu, **jakuz**  
zeuden, **egozen**  
zien, **eutsen**  
zitzaion, **jakon**  
zukeen, **eukean**

## GALERIA DEL LIBRO

José Angel de Zaballa

Liburudenda  
Euskal liburuak



EUSKAL LIBURU AZOKA

EUSKARAZ EGITEN DA

Ercilla, 35 - Tel. 43 83 99 - B I L B O - 1 1

# JAKIN

**Zuzenbidea:** JAKIN, Arantzazu. Oinati. Gipuzkoa.

**Oharra:** Adieraz gurutze batekin ondoko hauetatik nahi dituzun liburuak.

<b>JAKIN sorta</b>	pta.
<input type="checkbox"/> 1. <b>Ipar Euskal Herria</b> (agortua)	
<input type="checkbox"/> 2. <b>Salvatore Mitxelena</b> (agortua)	
<input type="checkbox"/> 3. <b>Rikardo Arregi</b> ... ..	100
<input type="checkbox"/> 4. <b>Kultura eta Fedea</b> ... ..	100
<input type="checkbox"/> 5. <b>Erljioa hauzipean</b> ... ..	100
<input type="checkbox"/> 6. <b>Gure Ikastola</b> ... ..	150
<input type="checkbox"/> 7. <b>Koperatibak</b> ... ..	110
<input type="checkbox"/> 8. <b>Euskal Herriaren atarian</b> (irteteko) ...	130

<b>JAKIN liburu sorta</b>	pta.
<input type="checkbox"/> 1. <b>Euskal Herriaren Historia</b> ... ..	130
F. Zabala	
<input type="checkbox"/> 2. <b>Mintzaira, aurpegia: Gizon!</b> ... ..	120
J. Hiriarte-Urruty	
<input type="checkbox"/> 3. <b>Iraultzaren hildotik</b> ... ..	100
J. Intxausti	
<input type="checkbox"/> 4. <b>Zezenak Errepublikan</b> ... ..	100
J. Hiriarte-Urruty	
<input type="checkbox"/> 5. <b>Kolakowski</b> ... ..	130
J. Arregui, J. Azurmendi	
<input type="checkbox"/> 6. <b>Herriraren lekuko</b> ... ..	150
R. Arregi	
<input type="checkbox"/> 7. <b>Axular. Mendea, gizona, liburua</b> ... ..	120
L. Villasante	
<input type="checkbox"/> 8. <b>Fedearen dinamika</b> ... ..	120
P. Tillich	
<input type="checkbox"/> 9. <b>Kultura proletarioaz</b> ... ..	130
J. Azurmendi	
<input type="checkbox"/> 10. <b>Euskaldunen ipuin harrigarriak</b> ... ..	130
M. Etxeberria	
<input type="checkbox"/> 11. <b>Ekaitza</b> ... ..	120
J. M. Satrustegi	
<input type="checkbox"/> 12. <b>Iraultzaz</b> ... ..	130
J. M. Torrealday	

**Ikus, ikas, ekin JAKIN liburuekin!**

Suskritoreentzat % 30, %40 eta % 50 merkeago!  
 Izena .....  
 Kalea ..... Tel. ....  
 Herria ..... Probintzia .....

- 1.000 pta. aurreratuz ordainduko dut.
- Liburu bakoitza ordainduko dut, datozen neurrian.

## Ontsa ez bizitzeko bidea

Euskaltzaletasuna gainbehera doa, diosku Laspiurrek. Horrela uste du Armendaritzek ere. Errealitateak berak ere horixe erakusten digu. Euskara, antza,\* herriak gero eta guttiago erabiltzen baitu. Azurmendi bera ez dugu baikorrago\*: oraindik ez dugu «gizarte proiektu» bat baikik. Eta, Odriozolak zioenez, «idiak uztarriz loturik badabiltza ere», ez dugu euskaldunok —edo eta geure herri eta proletarioaren alde jokatzeko prest omen gaudenok bederen\*— dialektika zer den oraindik ikasi; ez dakigu oraino zelan\* bat egin geure gizartearen subjektibotasun eta objektibotasuna; Azurmendiren berbak aipatuz, ez gara oraingoz hitzen mythologiaz baino bizi. Beraz, azken bolada\* honetako artikulu batzuk irakurriz, neure aspaldiko kezka baten inguruan hasi nauzue murgiltzen berriro ere.

Lehenago egunean norbaitek itaundu\* zidan, ea baiko-rra ala ezkorra nintzen euskararen etorkizunaz. Euskara ikasten hasi nintzenean, «zergatik ikas» galde egiten nion maiz\* neure buruari. Beharbada erromantizismo huts bategatik, ala bestelako arrazoirik nedukalako?

Askotan, geure herriaren hizkuntz bitasuna gogoratuz, galdera berbera egiten dut. «Guk biok zertan gara euskaldun, orain ere erdaraz ari baikara?, zioetan Enkartzatioetako lagun batek aurreko egun batetan.

Bestalde, gure «ezkertiar dibinalen» balio mailak dirrela medio, jende askok ez du euskara ikasten. Zoritxarrez, oraindino behintzat, halakoek ezin dezakete Tartasek proposaturiko erremedio miragarriaz baliatzeko aukerarik ukan,\* ezin irakur baitezakete haren liburuan: «Ontsa\* hiltzeko bidia dela herioaz orhitzia\*». Beraz, heriotze arazo honetan, ezin dezakegu inondik ere geure textuingurua ahantz;\* bestela, ez ginateke gizon izanen, eta ez genuke geure burua osatuko.\*

Eta hementxe ikusten dut nik, hain zuzen ere, errealitatea osorik ez ikustearren haiek darabilaten jazargoa,\* hots, euskarak eta euskaldun izateak jartzen diguten datu antropologikoaren baldintza.

Geure **izanahalak\*** geure kontzientzia alienatuarekiko nagusigoa eskatzen badigu, hau da, geure norgaltzearen\* kontzientzia edukitzea eskatzen badigu, ez dago, ene aburuz,\* zalantzarik\* —historia konkretu batetan murgildurik gaudenez gero, eta geure burua osatu\* nahi badugu— kontuan hartu behar dugula, baldintza historiko, politiko, ekonomiko eta kultural mugatu batzuen barruan bizi garena.

Orain —hala uste dut— lehenago itaunari\* erantzun diezaioket, gure hizkuntzaren etorkizunekoari alegia:\* Ezkorra naiz, bai, errealitate tristea ikusten dudalako, herriak askotan euskara erabiltzen ez baitu: baikorra, aldiz,\* nahitanahiez neure izatea apostuan jartzen dudalako, ez bainago prest neure burua hiltzeko eginahalak egiten hasteko, neure pertsonaren borrarera\* izan nahi ez dudana bezalaxe. Agian,\* Protagonasek esandakoa zuzena dateke:\* «Gizona da gauza guztien neurria».

Norbaitek idealista naizela pentsa lezake. Beharbada ba naiz; baina, neronek behintzat, ba dakit etorkizuna neure eskuetan dadukadala.

### ANDOLIN EGUZKITZA

dezakegu, **daiegeu**  
 dezakete, **daiee**  
 diezaioket, **deiskiot**  
 digu, **deusku**  
 digute, **deuskue**  
 gaude, **gagoz**

lezake, **leike**  
 nedukan, **neukan**  
 nion, **neutsan**  
 zidan, **eustan**  
 zioen, **inoan**, esaten zuen  
 zioetan, **inostan**, esaten zidan

# Neure lantokitik

## TURISMOA

Aurtengo lehen zazpi hilabeteetan, asko gehitu da turismoa mundu zabalean.

Hona hemen zifra batzuk,\* aurtengo urtarril-uztail epean turismoa nola igan den ikus dezazuen, ihazko epe berarekin konparatuz:

	%
Turkian ... ..	36
USAn ... ..	29
Eskandinabian ... ..	27
Dinamarkan ... ..	24
Jugoslavian ... ..	23
Grezian ... ..	22
Alemanian ... ..	10
Portugalen ... ..	8
Espanian ... ..	5

## GARIA

Espaniako gari uzta,\* azken urteotako txikiena izan da aurtengo: 41 milioi kintalekoa. Gorderik dauden erreserbak 13 milioi dira. Horrela, aurtengo beharrianak betetzeko beste\* gari ukanen\* dugula uste da.

Munduan gari eskasia handia dago; eta, badaezpada, Espainiak debekatu egin du gariaren exportatzea.

## OLIOA

Aurtengo bost hilabeteetan, Espainiak 49.748.000 litro olioba olio exportatu ditu.

Maiatzean bakarrik, 23.092.000 litro izan dira exportatuak.

## INGELESAK ETA EUSKARA

Espaniako Gobernu berriak gogortu egin du Gibraltarekiko politika. Gibraltaren bizi direnek, orain arte eduki duten ingeles kultura eta hizkuntza gorde nahi dute; eta kultura eta hizkuntza hori galdu egingo dutela uste dute, baldin Espainian integratzen badira. Ez dira fidatzen, espainolek eskaintzen dietenaz.

Ez dakit, hau nabarmentzeagatik edo izango ote den; baina Britainia Haundiak euskarari ipini ditu begiak. «GB» matrikuladun autoek euskarazko «poliki poliki» hitzak dakartzate\* txartel batean idatzita; eta tenis pilotetan (Bilboko dendetan salgai) beste hau irakurtzen da: «Politak — Made in England».

## KONTUZ LIBURUEKIN

Liburuak betirako dira. Beraz, kontuz idatzi behar dira.

Santos Rekaldek, hizkuntzaren aldetik hutsez beterik dagoen liburu bat argitaratu du. Ez ditu betetzen, Euskaltzaindiak azken urteotan euskara bateratzeko eman dituen arauak. Hau kondenagarria bada, areago\* da mende\* honen hastapenetik euskal literaturan erabili den hainbat erregela aldrebestea. Adibidez: lehen horrialdean lastan, jatsuz, eta abar idazten du; bigarren horrialdean sapatua; hirugarrenean auldu-ta, jo-ta nago, eta abar. Honela liburu osoan.

Ba dakit, euskara behar bezala ez menperatzea gure errua bakarrik ez dela, orain arte kolegio eta eskoletan euskara baztertutik egon baita. Niri neuri, esate baterako, ez lehen maila-

ko Eskolapioen ikastetxean, ez Estatuaren goi mailakoetan, ez zidaten euskara lantzen irakatsi. Horregatik, ikastetxe horietaz ez dut oroitzapen onik.

Baina liburu bat argitaratu baino lehen, zuzentzaile baten gana jo behar genuke, irakurleei eta hizkuntzari berari zor diegun begirapenagatik.

## MOZAMBIKE

Portugesek, Mozambikeko Wiriyamu herrixkan, 400 gizon, andre eta haur hil dituzte. Honek ez nau sobera\* harritzen, Portugesak, bai eskuinekoak eta bai ezkerrekoak, inperialista hutsak baitira.

Wiriyamuko hilketa horren berri, Mozambikeko misiolariak zabaldu zuten mundu guztian, eta portaera horrekin goian ipini dute Elizaren izena. Baina Portugaleko gotzainak zergatik isiltzen dira? Eta Portugaleko marxistak? Ez dutea hauek jokatzen, Frantziako ezkertiarrek Algeriako gudu denboran egin zuten bezala?

## BIZKAIKO HIRI NAGUSIAK

1972.eko abenduaren 31n hauek\* ziren Bizkaiko hiri nagusiek zituzten bizilagunak:

Bilbo ... ..	418.951
Barakaldo ... ..	112.128
Portugalete ... ..	48.151
Santurtze ... ..	48.124
Basauri ... ..	43.052
Getxo ... ..	42.792
Sestao ... ..	38.908
Durango ... ..	23.328
Galdakano ... ..	21.380
Bermeo ... ..	17.546

## XABIER GEREÑO

daude, dagoz  
dezazuen, daizuen  
diegu, deutsegu  
diete, deutsee  
zidaten, eusten

## O H A R R A

Aldizkari honek, beren liburuak dohainik bidaltzen dizkioten editorial guztiei eskerrak ematen dizkie, eta zinez prometatzen, ANAITASUNAK harturiko liburu guzti horien kritika —edo eta aipamena bederen— eginen diela bere horrialdeetan.

Editorialek dohainik igortzen ez dituzten liburuak dagokienez, aldizkari honetako idazleren baten bere kontutik ez bada, ANAITASUNAK ez du inolako beharkirik hartzen. Holako liburuen aipamena ez agertzeaz ez du, beraz, inork protesta egiteko eskubiderik.

ANAITASUNA

# Gure Munduko Albisteak

## Arrasateko euskal titulueterako examinak

Urriaren 6an, Arrasaten\* 63 ikasle presentatu ziren Euskaltzaindiak dei egindako examinara. Aita Patxi Altuna eta Xalbador Garmendiaren ezin etorriaz, mahaikoak Alfonso Irigoien eta Xabier Kintana izan ziren, nahiz eta gero, bide den bezala, azterketen korrejitzea lauren artean egin.

Euskal Herrian omen dauden 600 andereño horiek bestelakorik pentsaeraz liezaguketen arren, 63 ikasle horien artean 49, mutilak izan ziren, eta neskek, aldiz, 14 bakarrik. Jatorriari begiratu, 26 gipuzkoar ziren, 25 bizkaitar, 9 arabar eta 3 nafar.

Artikulu hau idazteko orduon kalifikazio guztiak agertu ez badira ere, aurrekoetan baino «gutiegi» gehitxoago egon dela esan dezakegu, jende asko, antza,\* behar bezain ikasirik ez baitzen agertu. Ea hurrengoan!

## «Andalan»: Aragoiko aldizkari bat

Nafar adiskide jator batek jakinerazi digunez, Zaragozako Unibertsitatearen inguruko jende batzuek, hamabostero, **Andalan** izeneko aldizkari bat ematen dute argitara, darabiltzaten gaiak aragoitar gizartearen problemak (ekonomiko, sozial, linguistikoak e.a.) direlarik. Artikulugileek, nabari\* denetik, ezker alderako joera dute, baina beti zentzu on batekin, idazlanak, ideologi sermoi abstraktuak gabe,\* —berau, zoritxarrez, euskaldunon aspaldiko izurrite\* zaharra—, errealtate konkretuari ongi eta artezki erantzuten diotenak baitira.

Aldizkari horrek, bestetik, aragoitar sentimendu eta kutsu jatorra indartzeko asmoa duela dirudi; eta izena bera ere euskal sustaiko da, bertako erdaraz **andalan** hitzak «lan sakona», «hondorainoko lana» esan nahi du eta: guti gora behera, Nafarroako herri deseuskaldundu askotan **ondalan** berbak esan nahi duen gauza bera.

Gure Herriko hauzoen kultur bizimoduaz kezkatuak daudenentzat, ene ustez, ez datorke\* gaizki aldizkari horri noizik behin begirada bat egitea. Hona hemen norabidea: ANDALAN. Coso, 71, Zaragoza.

## Irakurle baten galderak

**Ushandi** ezizenaz irakurle begiko batek ohar interesgarri batzuk bidali dizkigu ANAITASUNARA. Dienez, aurtengo irailaren\* 25eko **Hierro** egunkarian Satrustegui prokuradore jaunak, erdaraz, noski, «gure Hibaizabalek gaur egun 1935.ean zituen besteko zubiak ditu»ela deklaratu du, bai eta «hirigintzá ganore gutirekin egiten ari dela, jolasleku eta berdeune eskasez». Azkenean, jaun berberak hauxe ere esan omen du aldizkari horretan: «Herrialde bakoitzak bere ordenazioa programatu beharko luke, eta are\* gehiago halako bereizitasun handiak dituztenek».


Ushandi jaunak, harriduraz, hauxe galdetzen du, ea zer egiten duten gure agintariek, hain zuzen holako problemak konpontzeko dauden «gure prokuradoreok»; Bizkaiak sorterazten duen dirutza nora ote doan, Sollubeko kaminioa dagoen moduan dagoen artean. Eta beste zenbait galdera. Irakurleren batek erantzun nahi balio, ba\*... egitea besterik ez du, galderok gure buru exkaxerako larriegiak baitira.

## Bertsolariak Oiartzunen

LARTAUN kultur, jolas eta kirol Elkarteak bere egunean bidali zigun programmaren arauera, eragozpenik egon ez bada, urriaren 21ean, goizeko 11,30etan bertsolari jaialdi bat egon da Oiartzunen, erakunde\* horrek antolatuturik.

Berau dugu. Oiartzunen egiten den bostgarrena; eta «Bertsolarien etorkizuna» izenpean joan da.

Bertan bertsolari trebeak saiatu dira: Igarzabal, Gorrotxategi, Lizaso, Zabala, Garmendia, Goiburu, Ziolar, Muñoa, Zendoia eta beste batzuk.\*



Jaialdi hau «Zurko» baserriko Joxe Joakin Urbiet (Kazkazuri) zenaren omenez egin da, aurtan baita hura\* jaio zen ehunurteburua.

## Ezkerraren etsaiak

Ez da inongo sekretua euskal ezkerraren krisialdi larriau. Joan Mari Torrealdaik oso zuhurki hitz egin digu honetaz, bai bere liburuan eta bai ZERUKO ARGIAko azken elkarrizketa horretan. Hark arriskua eskuinean zekusan\*; eta arrazoi handia du. Eskuina, bai puntakoa eta bai burua ezker itxuraz estaltzen duena, beti ezkerraren kontrakoa izanen da. Txile hor dugu Hori politikaren legea besterik ez da.

Baina euskal ezkerrek ba du bestelako etsai bat, orain arte inork salatu ez duena. Guztiok dazagutzagu,\* bai horixe! Eta aspaldi honetan ikastoletan egiten diharduten joko nigargarria argiro dago. Hauek, maskararik gabe gainera, beren burua euskaltzetasunaren etsai amorratutzat derakuskigute.\* Halakoentzat euskal kultura burjesa da; erdarazkoa, Estatuarena, ordea,\* ez. Ikastoletan bilinguismoa ipini behar omen da, eta hurrei askotan erdara hutsez egin.

Noski, kultur arloan hainek\* deus onik egiteko ahalik ez, eta inorena amorrurik bizienaz systematikoki kritika.\* Beste puntako eskuindarren antzera, indar desegile bat dute, negatibo hutsa. Alferrik dugu hemen holakoen erdaltasuna eta euskal interesik eza salatzea. Beraiek beren burua berez aski\* klar salatzen digute eta. Baina salatu behar dena eta orain arte inor gutik egin duena, beste hau da: halakoak ez direla bakarrik euskaltasunaren etsai, baizik eta ezkerren beraren etsai.

Halakoengatik, herri xeheak «ezkertiar» omen den talde horretan herri balioen uko\* biribila dakusa,\* eta, ondorioz, ezker osoaz mesfidatzen da. Eta hau bai dela, ez Euskal Herriko ezkertiarren aldetik, baizik eta mundu osoko ezkertiarrengandik, sekula sainduan barkakizun izanen ez zaiena.

Sozialismoaren etsairik txarrenak, ezkertiar izenez herri zapalduen eskubideak ukatzen dituzten sasisozialistak berak direla esan zuena, ez zen, kasualitatez, euskalduna, Vladimir Iliitx Uliianov burkidea\* baizik. Beharbada, batek jakin!, horregatik hura\* ere burjesatzat hartu beharko dukegu.\*

## Donostiako bilera eta urgentziako plana

Aurreko ANAITASUNA batetan esan genuenez, Donostiako Herriko Etxean bilera bat egin zen, euskara Espainiako euskal probintzietako eskoletan ofizialki sartzeko. Nola uler, ordea, Bizkai eta Gipuzkoarako «plan de urgencia escolar» delako hori ikastola zuten herrietan hain presaka sartu ondoren, orain euskarari halako laguntasuna eman nahi izatea?

Honetaz, **Cuadernos para el Diálogo** aldizkariak, udaberrian irakaskintzaz atera zuen zenbaki berezian, ikastolari buruz zioena egia hutsa zen. Agian\* asko ez dira oraindik konturatu zertara zetorren urgentziatzeko plan hori, eta hobe, bai horixe!, lehenbailehen konturatuko bailira.

## Judu-arabiar arteko gerra

Gerra berriro hasi da Ekialde\* Hurbilean; baina oraingoan David ttikiak ez du Goliath erraldoia\* harrikadaka hain erraz buruan jo. ANAITASUNA hau aterako denerako, ez dakit, baina orain arte behintzat arabiarrek Dayanen tropei hortzak ongisko\* erakutsi dizkiete, bai burrukan, bai petrolio arazoan eta bai diplomaziari doakionean ere.

Izan ere, euskaldunon artean, juduen aldeko propaganda erromantiko eta merke bat zabalduegia da, geure buruarekin gehiegi konparatzen baititugu israeldarrak. Bai lurraldearen ttikitatsunean, bai hizkuntzaren birpizkundean eta bai berjabetasun\* nahian antzekoak omen gara. Puntu bat, ordea,\* ahantzi zaigu, oso inportantea gainera. Israelek ba du, guk, agian\* zoritxarrez, ez dugun aitabitxi boteretsu bat: Estatu Batuak.



Horrela, ba,\* itxuraz hain ttiki eta indarge zirudien David gaixo hura,\* egiaz, benetako koloso ongi harmatu bat da, eta Goliath, arabiar erraldoi gizaxoa, besomotz elbarritu bat. Ez da, beraz, hain harriarri orain arte juduak nagusi agertzea.

Baina Sobietar Batasunaren laguntasunaz, ez segurki gratis et amore emana, tornua aldatu da, eta Israelek bere inperialismoa eta harrokeria apaldu beharko ditu; bere mugak ttikitatu, bake iraunkor bat nahi badu bederen.\* Agian gudu honetan **establishment** berri bat lortuko da, eta Egyptok bere aurreko umiliazioa garbitu, Syriak eta Jordaniak beren lur gehienak birlortu eta juduek, truke, muga iraunkor batzuk erdietsiko\* dituzte.

Zer izanen da, ordea, fedayim-ez, zer palestindarrez? Hauk\* dirateke,\* segur aski, potentzia haundien Inteses ezberdinen arteko gerra honetatik gaizkienik irtengo direnak. Denborak erakutsiko.

## Bizkaiko diozesiaren helburuak

Gure eskuetara heldu den «Plan Diocesano de Pastoral»ean (actubre, 1973) irakurri dugunez, bertan aipatzen diren 23 **objetivo prioritario pastoralen** artean (**artzan\* helburu behinenak** edo), laugarrena «**Promover los valores peculiares del pueblo vasco**» da, Pacem in Terris entzyklikaren arauera.\* Horretarako, apezpikuak proposatzen duen programan, Elizak euskara, alfabetatze kampainak, euskal kultura, irakaskintza eta ikastolak lagunduko omen ditu, Elizaren ardurapeko irakastegietan euskara apurka apurka sartteraziz. Euskal kulturaren alde, lehen aipaturikoez gainera, erdaraz ere Elizaren informabide guztietatik propaganda eginen omen da, hauetan, bidebategi, euskarari sarrera haundiago bat emanez.

Asmo txalogarriak, benetan, guztiok. Pozik dakusagu\* nola Elizak, azkenez, ofizialki, Euskal Herri bat, euskara delako bat, euskal kultura bat eta euskal problema batzuk\* ere ba daudela aitortzen duen; oso konkretuki gai-

nera. Dena dela, oraingo ohartzeko berantkor honek, nahiz eta nahi ez, orain arteko axolagabekeria gogora erazten du. Baina, tira!, txarragoa litzateke, noski, **hilda gero, salda bero** delakoa.

Hala ere, erabaki hori ezin hobeki iruditu arren, permiiti biezagu irakurleak, egin litezkeen beste askoren artean, zenbait galdera jartzea.

1. Zer gertatu da diozesiaren **Radio Popular de Bilbao**-n, gutienez orain dela urtebete izendatu zuten euskal komisioko hartaz? Zergatik ez zuen bere eginkizuna burutu, eta euskara ez da orain arte Bizkaiko diozesiaren irratiko programetan sartu, «justiziak eskatzen duenez» (Pacem in terris)? Loiolako eta Donostiako Herri Irratiek ez dute ukan,\* antza,\* holako eragozpenik, euskararen alde argiago eta zintzoago jokatzeko.

2. Zergatik Elizak, euskarari dagokionez, ez du ezertarako ere kontaktu, ez eta kontaktuen, Euskaltzaindiarekin? Batasunaren haizian Euskaltzaindiaren kontrarioekin bakarrik kolaboratzea ez da, ene uste apalez, inolako neutralitatearen seinale.

3. Orain arte Bizkaian Elizak ikastoletan edukiriko partehartzean, noraino egon da presente euskal kulturaganako ardura, eliz interes berezian gaintetik?

Jakina, ongi dago aurrera joatea, baina lehengo okerretan berriz ere erori gabe.

## Berri laburrak

### «Hil ala bizi», Larraunek

Gure belarrietara euskal liburu baten berri heldu da, urriaren erdialdean ipar Euskal Herriko liburudendetan banatzen hasia: **Hil ala bizi**, Larraun delako batek egina. Dirudenez, mamia zeharo politikoa da eta bortitza, orain arteko obretan ez bezalakoa. Idazkera aldetik berrikuntza franko omen dakartza euskal letretara, Hego Amerikako elaberrien\* tankeraz.\*

Euskal elaberri honek, elaberri bat omen baita, arrakasta\* haundia ukanez\* du segurenetik, eta biziro eztabaidatua izanen dela seguratu digute. Ea horrela den.

Bibliografiarako: LARRAUN: **Hil ala bizi**, Ed. Elkar, Angelu,\* 1973.

### «Márgenes» debekaturik

Azken orduon, urriaren 20an, jakin dugunez, **Márgenes**, Barakaldoko hamabosterokoa galerazia izan da, horretarako aipatu diren arazoak administrazio kontukoak direlarik. Irakurleak dakikeenez,\* aldizkari hori sozial kutsukoa zen, eta jende xume\* eta langileen egiazko problema konkretuez aritzen zen.

### Pau Casals hil da

Pau Casals kataluniar musikari ospetsua hil berria zaigu Amerikan urriaren 22an. Beronekin hiru dira aurtan joan zaizkigun Paulo famatuak, Picasso, Neruda eta bera. Gure oroitzapena guztioi.

## ARMENDARITZ

biezagu, **beisku**  
dezakegu, **daikegu**  
daude, **dagoz**  
digute, **deuskue**  
diote, **deutsoe**  
dizkiete, **deutseez**  
dizkigu, **deuskuz**

liezagukete, **leiskigue**  
zaie, **jake**  
zaigu, **jaku**  
zaizkigu, **jakuz**  
zigun, **euskun**  
zioen, **inoan, esaten zuen**

# GERNIKAKO

## IKASTOLA BERRIA

Aurten, urriaren azken egunetan, Gernikan orain arte zegoen ikastola zatitu egin da, bat gabe,\* bi geldituz.

Lehenengo ikastola bakarrean, guztitara, 180 ume inguru ei\* zeuden. Ume horien 120 gurasoekin batera, ikastolak 300 sozio inguru zituen. Sozio izateko, aski\* zen 100 pezeta ordaintzea.

Batzarreetan sozioek gurasoek besteko eskubidea omen zuten, umeen irakaskintza, pedagogia eta heziari buruz beren botoak emateko, nahiz eta, pentsatzekoa denez, guraso askok, eskubide berdintasun horri demokratiko eta egoki eritzi ez.

Ikastola, bestetik, ez zegoen legez onhartua; eta gurasoek juntakoei arazo honetaz behin eta berriz egindako eskabideek ez zuten, antza,\* oihartzun\* handiegirik lortu haiengan, ondorioz ikastolaren egiazko egoera zeharo kili-kolokoa izanik.

Ikastolako barne-arautegiari dagokionez, ba dirudi onhartzinezko puntu batzuk\* zeudela bertan, esate baterako, «gingo zuketena egin arren, hango irakasle eta andereñoak ikastolatik inolako arrazoirengatik ezin kanpora bidaltzea».

Bestetik ere, kexa nabariak\* entzuten ziren gurasoen artean aspalditxuon, ikastolan euskarari eta euskal kulturari zor zitzaiena ez zitzaiela ematen esaten zutenak, guraso gehienen gogoia horixe izan arren.

Gurasoek, behin eta berriro problemok konpontzeko ahaleginak eta bilerak egin ondoren, ez omen dute juntagandik satisfakziorik hartu, ez irakaskintza-hezierari dagokionez ez eta legalizazio kontuan ere.

Azkenean, lehenengo gurasoetatik 90 inguruk beren kontutik beste ikastola bat, kooperatiba gisa,\* eratzea erabaki dute, beren 110 umeak lehenengo ikastolatik aterata. Andereño tituludun batzuk, gainera, lehenengo ikastolan zeudenak, guraso horiekin batu dira asmo horretarako.

Lerrock idazten ditugun egunean, oraindik guraso berriak elkartzen ari dira ikastola berriaren inguruan, bai eta laguntasuna eman ere.

Lekuari dagokionez, ikastola honek, aurrekoak bezala, Gernikako gizarte etxean edukiko du bere tokia.

Guraso hauen asmoa ikastola lehenbailehen legalizatea omen da, bai eta euskara, heziaria eta euskal kultura seriotasun osoaz ematea, ikastolaren martxa eta jokatzea, elkarrizketa eta batzarreen bidez, irakasle eta gurasoen artean erabakiaz joateko, beti demokrazia onean.

Aitortzen denez, gurasoengan eta irakasleengan borondate ona ez da falta, nahiz eta, zoritzarrez, esperientzia eta formazioa, kasu askotan, behar adinakoa\* izan ez; eragozpenak, horregatik, ez dira gutti izango.

Helburua, ostera,\* honez gero argiro ezarria dute. Ba dakite ikastola norantz eraman nahi duten, eta horretarako bideak, segur asko, topatzen ahaleginduko dira. Denborak esango, lortzen duten ala ez.

Esandakoengatik, beraz, Gernikan, honez gero, baten lekuan ikastola ezberdin bi ditugu, bakoitzak bere jokatzea bereziaz. Hau, duda gabe, gure Herriaren pluraltasun eta dinamikaren seinalea da, eta berez ez da txarra. Hemendik aurrera, beharbada, konkurrentzia bat sortuko da bien artean eta elkar osatuz joango dira, beti umeen heziaria osoago eta hobe baten bila. Horrela nahi izateko litzateke. Dena dela, Herriaren aukerak erakutsiko digu une guztietan bietatik zein duen gogokoago eta zeinek betetzen dizkion ondoenik bere asmo eta helburuak.

Ea biek bizitze luze bana edukitzen duten!

P. URTIAGA

digu, **deusku**  
dizkio, **deutsoz**

zeuden, **egozen**  
zitzaiena, **jaken**

## International Linguistic Institute

Erakunde honek,

Heziaria-Zientzietako Ministerioaren oneritziak,  
hurrengo hizkuntzotan (Ulecosta methodoaz)

DIPLOMA OFIZIAL bat eskuratzeko bidea

**ESKAITZEN DIZU**

### EUSKARA

Errusiera Juduera  
Japoniera Italiara  
Turkiera Ketxua  
Portugesak Katalana

### INGELESA

Pekindar txinoa Latina  
Korearra Holandera  
Pertsiera Espainola (atzerri-  
tarrentzat) Servokroatiera

### FRANTSESA

Polakoa Vietnamiera  
Ungariera Arabea (literaturazkoa  
eta hizketazkoa)  
Estoniera  
Txekoa

### ALEMANA

Errumaniera Hindua  
Sanskritoa Suomiera  
Esperantoa Suediera  
Grekoa Danesa

ZATOK BILBOKO GURE ORDEZKARITZARA:

Hurtado de Amézaga, 27, planta 12-9 (edificio Sanreza)  
Tel. 43 20 13



# LATINAMERIKA NONDIK?

1945.ean demokraziak irabazi omen zuen gerra gizon guztientzat, eta, gerrarekin, bai eta historia bera ere. Aurrerakoan historia hori demokrata izanen zen. Uste amesgarri hura ustel gertatu zaigu geroztik. Herri demokraziaren irtenbideak Txekoslovakian eta Hungarian ito ziren. Demokrazia liberalek ez dute eboluzio pizkor batean sartu nahi izan. Politikaren zibilizazioak ez dute bide zuzenik aurkitu. Eta ba dirudi, alde askotatik, Munduko II. Gerrate haren ondotik, ia 30 urte pasaturik ere, munduak ez duela batere zorte onik. Gizonen eta herrien libertate gosea gose izaten irau beharko du. Mendebaldea gaizki doa; eta Ekialde sozialistak ere ez du aurkitu, batek baino gehiagok espero zuen etorkizun irekirik.

Latinamerika da, egoerarik tristeenetako bat eskaintzen diguna. Harmagizonen indarra da toki askotan gizartearen lege. Mapa bati begiratzen baldin badiogu, halako beltzune ilun bat zabaltzen ikusiko dugu Estatu Estatu: Ecuador, Peru, Bolivia, Brasil, Paraguay, Uruguay, Chile... Diktadura guztiak ez dira, noski, berdinak: Cubakoa, esate baterako, ez da harmada klasiko batek ezarri duen diktadura, Batistarena baitzen harmada klasiko hura.\*

Hegoamerikan bakarrik, Erdiamerika albora utzirik, 135.000.000 gizon eta emakume dira diktaturapean daudenak. Eta, hau esatean, ez ditut haintzakotzat hartzen Colombia eta holakoak; eta ba legoke horietaz ere zer esanik. Estatu bakoitzak, historiak eta ekonomi egoerak ezarri dion izaera desberdina du, aparteko aurpegia. Bizpahiru taldetan banatuko nituzke Estatuok.

Castroren Cuba da, marxismo-leninismoaren arabera\* egindako iraultza seriotan hartu duen bakarra. Teoriaz, teoria ofizialez (eta egitez zenbateraino?), herriaren zerbitzurako eraiki da Estatu sozialista hau. Nola ikusiko du geroak, diktadura sozialista horrek egin duena? Ezin uka, dirudienez, eskolagintza serioki eraman nahi izan duela. Egintza hau oinharri objektibo baliozkoa izan liteke geroan ere. Baina herriaren beraren demokrazia noiz arte juzga liteke, Cuban bezala, kontrairaultzat? Hau da, teoria erne eta praxi jator batek egiten duten galdera; galdera horixe baita, azkenean, diktadura indartsu guztiek orain artean erantzun ahal izan ez dutena.

Beste era bateko esperantza da Perukoa. Velasco Alvarado lehendakariak, gizarte aldakuntza herrikoi baten alde lan egitera eraman du harmada klasikoa. Ondoko urteetan jakingo dugu zenbateraino zen gogo hau egingarri. Peruko egoerak eta Chile zenaren (!) azken aldiko gertakariak\* azterketa berezi bat merezi dutenez, utz dezagun horiekikoa beste batetarako. Allenderen Chile hura\* atzera geratu da, dirudienez, behin betirako; baina politika eredu\* hor dago tinko ezkertiar guztientzat, erreferentzia bizi bat bezala.

Stroessner-en Paraguay eta Banzer-en Bolivia, Latinamerikak betidanik izan dituen jauntxoaren historiaren luzagarriak dira. Horiengan aurki litezkeen asmo aurrerakoei, ez dituzte gizarte haik\* berrituko. Demokrazia formalararen jokotik at\* irten dira: handik kanpoan daude, diktaturaren gogorra nola justifika ez dakitela. Agian\* bost axola\* zaie, gainera, justifikapen hori.

Uruguayko diktadura oraindik tristeago eta gogorra goa dela esango nuke, Bordaberriren gobernabidea beldurraren umea baita, zuzen zuzenean. Uruguaytarren politika tradizioari salkeria\* lotsagarria egin diote lehendakariak eta beronen harmagizon lagunek.

Brasilgo diktadura bestelakoa da (ez bigunagoa). Hemen ere harmagizonek dute zuzenean beren eskuetan agintea. Eskuinaren eskuina da hemengo gobernabidea, gobernabide zitala, zipotza.\* Politika osoaren erregela bakarra, herbesteko kapitalismoa erakartzea da, desarroilo edo hazkuntza bizi baten zerbitzuan. Brasilek, berek diotenez, ekonomia zindo\* bat behar du; horretarako, nazioarteko kapitalaren laguntza behar du nahitanahiez.

Gizarte kezkatu batek halako beldur zimiko\* bat sortzen dio nazioarteko kapital horri: ukazina da, kapitalismoak justizi kezka zenbaiti dion mesfidantza. Brasili ez zaio komeni, beraz, langileria pizkor bat. Ez da kapitalismoa izu erazi behar, ez da kapitala uxatu behar. Harmagizon hauen ezkontide, teknokratak izan ohi dira hemen eta beste tokitan. Ba dakite garbiki, zer nahi duten. Deskapitalizazioaren beldurrak, edo diru bilaketarako errespetagarritasunik ezak oso urduri\* jartzen ditu harmagizon eta teknokrata hauk.\* Izan ere, ekonomia airoso ateratzen ez baldin badute, nolatan justifika, herriari kendu dioten askatasuna eta ezarri dioten zama\* astuna? Dena dela, ez sobera\* kezka: izanen du Brasilek hazkuntza mardulik. Baina nork jasan beharko du aitzinamendu horren pisua eta sufrimendua? Hori ere beste galdera bat da.

JOANES GOIA

daude, **dagoz**  
dezagun, **daigun**  
digu, **deusku**  
dio, **deutso**  
diogu, **deutsagu**  
diote, **deutsoe; dinoe**  
zaie, **jake**  
zaigu, **jaku**  
zaio, **jako**



## MENCHACA

Estalkiak, Itzalkiak, Ikurriak, Itxas tresnak, Igeritekoak, Uretako Jantziak, Alokatzeko Itzalkiak.

Zuzenbideak: Posta, 700-Urrutizkin, 245574-Telegrafoa, **MENURI**  
Muelle de Uribarte, 15 **BILBO-1**

# Proletal kultura dela eta

J. Azurmendi gure intelektualak, «Kultura Proletarioaz» idazteko luma hartu zuenean, bere liburuak dudarik gabe izanen zuen «halako kritikoaz» bildur zela aditzera ematen digu hitzaurrean.

**Oraín ba dirudi,** Axularren hitzez esateko, alderantziz dela, halako kritikoa bildur dela, **ahalke\* dela, ez dela jendartean ausart.\*** Zeren,\* nik dakidanez, hura\* isilik baitago, Azurmendiren eta gu guztion lasaltasunerako.

Eta ez da harritzeko, alajaina! Batetik, gaia bera da izatez oso delikatu eta irristakorra\* (eta Azurmendik ba daki); eta bestetik, ausartzia demasa behar da, egia esan, Zegamarrarekin eztabaldatan sartzeko.

Ez du izkututzen\* egileak, «proletkulturalismoaren» gisako\* gai baten lantzeak duen arriskua: «Ba dakit, berriz ere jaso nezakeela txalorik gainera faltsotik: hemengo kritikak batere arrazoirik gabe poztuko dituenik ere ez dela faltako» (K. Proletarioaz, 36. horrialdean). Hori da arriskurik haundiena, izan ere: «eskuineko» kritika bat egitea, Stalinismoaren fenomenoaren estudiatzerakoan Aithussek gogoratu duen bezala.

Horregatik, ni bildur naiz galeria faltsutik behar baino txalo gehiago jaso ez ote duen, eta, batere arrazoirik gabe, bat baino gehiago poztu ez ote den.

Dena dela, goazen geure puntura. Gaurkoan, liburuaren hutsunerik nagusia, nire eritzirako, non datzan\* aipatuko dut, eta ondoko zenbakietan hutsune hori betetzen salatuko naiz.

Azurmendi zitatzuz ekinen\* naitaio: «Alemania Herritarreko hiztegi kultur-politiko batetan irakurtzen denez (Kultur-politisches Wörterbuch, 1970), proletkulturalismoaren zenbait tesi Maotsetung-en

inguruko multzoaren teoria eta prakti antimarxistan superbizi da gaur. Sobietarren eta txinarren arteko haizia literaturaraino ere ailegatu baita jadanik.\* Hala ere, baieztape\* hori lasai samar dudamuda liteke, fede garbiaren kontrako bekaturik egiteko bildurrik gabe. Maoisten proletkulturalismoa, beharbada, haien antiburokratismoan aurkitu behar da, sobietarreko diferentzian» (K. Proletarioaz, 33. hor.).

Txinako Proletal Kultur Iraultza, besterik gabe, lasai samar dudamudatu, alde batera uzten duelarik, Azurmendiren saloa kamuts\* gelditzen da oso. Eta pena da benetan. Hain zuzen ere, Txinako esperientziak erakusten baitigu, Errusiakoak ez bezala, proletal kultura jator batek zer behar lukeen izan.

Nire ustez, proletal kultura baten muina hatxeman\* ahal izateko, Txinako Proletal Kultur Iraultzaren argitan aztertu beharko genuke Errusian eman zen fenomenoaren.

Zeren,\* aurrerakoitasun guztiak erlatiboak badira ere (eta hala dira, nik uste), Txinan zerbait «berria» gertatu dela aitortu beharra baitago. Han eman den dogmatismo-rebisionismo-burokratismoaren kontrako burruka latza, guztiok hartu behar genuke oso kontutan.

«Maotsetung-en inguruko multzoaren» aportazio teoriko-praktikoak asko lagun\* gaitzake, nik uste, euskal kultur gintzan. Luxum eta Maorekin zenbait puntutan ados ez izanik ere, haien literatur ideiak zentzuzkoak aurkituko genituzke gehienok. Literatur gintzan haik\* jarraitutako bidea oso kontutan hartzeko iruditzen zait niri. Ba dakigu, Mao bera idazle burjestzat kritikatu izan dela.

Baina hori dena hurrengo zenbaki batetan ikusiko dugu.

PERUGORRIA

Froga ezazu zuk zeuk

**BYASS 96**

ona dela izenez eta izanez



**GONZALEZ BYASS**

JEREZ • XÉRÈS • SHERRY

digu, **deusku**  
gaitzake, **gaikez**  
genituzke, **geunkez**

## IV. Alfabetatze ikastaroa

### DEUSTUKO UNIBERTSITATEAN

Aurten ere, aurreko urteetan bezala, Deustuko Unibertsitateko Euskal Kultur Mintegiak beste Alfabetatze Ikastaro bat eratu du, Bizkaiko Aurrezki Kutxaren laguntzarekin.

Ikastaro honetako irakasleak Xabier Kintana eta Patxi Elgezabal izango dira: bata goiko mailakoentzat, eta bestea oraindik hastapenetan\* direnentzat.

IV. Alfabetatze Ikastaro hau hazilaren\* 5ean hasiko da, datoren urteko urtarrilaren\* 20an amaizteko. Eskolak astean hiru egunetan emango dira: astelehene, asteazkene eta ostiraleetan. Ordua: arratsaldeko 7etatik 8etara. Matrikula saria 500 pezeta izango da.

Izena emateko eta berri gehiago izateko:

Euskal Kultur Mintegia  
Deustuko Unibertsitatea  
Posta kaxa 1 - Tel. 212121

# ILARGIKO GIZONA

Gaua da. Osaba Martin etxeko egongelan elaberr<sup>\*</sup> bat ari da irakurtzen, bere pipa zaharrari noizik behinean zurrupadaren bat emanez.

Enekeri eskolak hasi jakoz, eta aurtengo textuliburuak aztertzen dihardu, bertako irudi koloreztatuak ikusiz. Halako batean argia joan egin da, eta egongelan ilunpean gelditu dira. Zorionean, leihotik ilargiaren argi zurbila<sup>\*</sup> sartzen jake, eta zer edo zer ikusten dabe.

—Eskerrik asko, ilargitxo! —dinotso mutikoak leiho ondora joanez—. Ikusten dozu, osaba, zein ona dan ilargia? Ba dirudi, gainera, irribare egiten deuskula bere aurpegi biribilaz.



Osaba, liburua egongelako mahaitxoan utzirik, leiho-raino doakio, eta, kanpora begiratu ondoren, honela hitz egiten deutsu lobarri:

—Nik neuk ez dakusat<sup>\*</sup> ilargian inolako aurpegiarik. Hori satellite bat besterik ez da.

—Horra, ba! —Enekok zapuzturik<sup>\*</sup>—. Hori nik ere ba nekian; baina, gainean dituan zuri-beltzuneen artean, aurpegi bat daukala esaten da, ez da?

—Ez pentsa, txotxo, hori mundu guztiak dinoanik. Espainian eta, beharbada, Frantzia, bai, aurpegi bat ageri dala esateko ohitura dago; baina Ingalaterran, berriz, untxi<sup>\*</sup> bat agertzen dala esaten dabe, eta Alemanian, ostera,<sup>\*</sup> neskatila polit bat.

—Nik ez dakusat, ordea,<sup>\*</sup> ez bata ez bestea —Enekok ilargira begira—.

—Bai, adi adi geldituz gero. Untxia behintzat, Ingalaterrako maparen antzera, oso errax ikusi daiteke, beti gora begira. Belarriak eskuinean eta beherantza, eta bu-rua eta hankak goiko partean.

—A, bai! Orain bai, ba dago untxi moduko zerbait. Eta zelan<sup>\*</sup> ez dot nik orain arte holakorik ikusi, ba<sup>\*</sup>?

—Orain arte, horrelakorik ikusi behar zenduanik inork esan ez deusulako. Herri bakoitzak bere tradizioak ditu;

eta horreexek izaten dira, gazteei ipuinetan kontatzen ja-kezanak.

—Eta euskaldunok ez ote dogu holakorik?

—Bai horixe! Oraintxe ninoian, gurea esplikatzer. Euskal ipuinetan, ilargian gizon bat agertzen da, lepoan zakua eta ondoan txakurra ditualarik. Begira eizu ondo. Lehen esan deusudan untxi horren belarriak gizonaren hankak besterik ez dira; atzean txakurra dau, eta bizkar gainean zakua.

—Baita<sup>\*</sup>! Eta zer egiten dau hor, ba?

—Gizon hori aintzina lapur bat izan ei<sup>\*</sup> zan. Behin batean, ilargirik ageri ez zan gau batean, hauzoaren ba-sora sartu ei zan, eta hauzoari egurrak kentzen hasi eta zakura sartu, harek ikusi barik<sup>\*</sup> gainera, zeruan ilargirik ez egoen eta.

Halako batean, baina, ilargiak bere begi handia ho-dei artetik atera eta argitasunaz bete eban lapurra egoen basoa. Gizonak, argitasun haregaz<sup>\*</sup> beharbada jabeak ikusi ote ebalako bildurrez, madarikazio batzuk bota ei eutsozan ilargiari, bere lapurreta argitan ipintzen eutso-lako.

Ilargiari, antza,<sup>\*</sup> ez jakozan batere gustatu berba zan-tar hareek; eta halako batean, dzast! eskua lurreraino lu-zatu, gizon ha<sup>\*</sup> hartu eta hara gora eroan<sup>\*</sup> ei eban beti-ko, alboan eukan txakurra eta guzti. Harez gero hantxe ei dago, guztioi lapurretarik ez dala egin behar esanez.

—Kontxo, osaba! Bai gauza harrigarriak dituala ilar-giak. Eta maisuak guri eskolan ez deusku holako batere kontatzen.

—Ez! Ez dakianak zer kontatuko deusue, ba? Ikasto-letako andereñoek, berriz, eskolamaisuek ez dakiezan euskal ipuinok ba dakiez, eta umeei kontatu ere bai.

—Eta hala bazan, sar dadila kalabazan eta irten dadi-la Derioko plazan.

—Baina Derion ez dago plazarik, osaba!

## TRAUKO

dabe, <b>dute</b>	egoen, <b>zegoen</b>
dakiez, <b>dakitzaite</b>	eizu, <b>ezazu</b>
dau, <b>du</b>	eukan, <b>zedukan (zeukan)</b>
deusku, <b>digu</b>	eutson, <b>zion</b>
deutso, <b>dio</b>	eutsozan, <b>zizkion</b>
deutsu, <b>dizu</b>	jake, <b>zaie</b>
deusue, <b>dizue</b>	jakez, <b>zaizkie</b>
deutsut, <b>dizut</b>	jakoz, <b>zaizkio</b>
dino, <b>dio, esaten du</b>	jakozan, <b>zitzaizkion</b>
dinotso, <b>diotso, esaten dio</b>	ninoian, <b>nindoan</b>
eban, <b>zuen</b>	

# ESPERIENTZIA ZAHARRA

Txileko kasua ez da izan gisa\* honetan gertatu den lehenbizikoa, hots,\* legalitatearen bidez eta lege barruan iraultza egin nahi izatea. Horrelako esperientziak lehenago Frantzian eta Europako beste zenbait lekutan eginak dira; baina beti irteera berdina ukan dute: Iraultza baztertuta geratu dela edo erreazioak hankaz gora bota dela, boterea zedukatèn gobernari aurrerazaleak zerbait positibo egiten ari baitziren.

Orain ere hor dago Frantzian **Herri Batasuna** deritzon alderdien elkarte. Beste leku batzuetan **Askatasunerako Paktuaren** programma izango da, eta beste toki batetan halako beste izen batekin agertuko da. Baina, legalitatearen barruan egiten diren bitartean, iraultzarik ez da izanen; eta elkarte hauek hola egiten dute.

Behin eta berriz, Fidel Castroren bideak arrazoia ematen du, hots, boterea benetan hartu nahi bada, legalitatea kanpoan utzi behar dela eta hura\* bortxaz hartu beharra dagoela; hau esperientziak erakusten du. Fidel Castro Sierra Maestrara joan zenean, hamar gizon ere ez ziren, eta praktikaren bitartez harmada haundi bat osatu zuen, eta hola sartu ahal izan zen Habanan.

Allenderen esperientzia ere oso polita izan da, baina erromantikoa. Allendek legearen indarrean sinesten zuen, eta ez harmen indarretan; eta berauek galdu dute, hauek kendu diote bizia. Herri Batasunaren estrategia legearen barruan sartuta zegoen, eta ezin zezakeen harmada ofiziala deusezta\* eta Herri Milizia bat sor, berau Konstituzioaren aurka zegoelako. Legearen preso zen Herri Batasuna; eta oligarkhiak ipinitako legeak, guti batzuen interesen zerbitzuan jarriak, behin ere ezin ditza-kete iraultzaileek erabil, ez baitira berauentzat eginak izan.

Fidel Castrok, Allenderen aurrean eta Che Guevararen photographipean, herriak boterea hartzeko era asko zituela esan omen zuen. Baina benetan egia esaten ari ote zen? Chek hori pentsatzen ote zuen? Ez, ez dut uste.

Berriz ere irakaspen eder bat ukan\* dugu: iraultzaileek boterea eskuratzeko bide bakar bat dutela, hots, indar harmatuen bidea, eta beste dena erreformismoa eta herria enganiatzea dela, errealitateak ederki derakuski-gunez.\*

Agian\* baten batek esanen du ea, era honetan boterea hartzen denean, ez ote den beste diktadura baten pean sartzen? Bigarren puntu hau diskutigarria da, ez baita berdin iraultza mentalitate agintari batez egitea, Leninek egin zuen bezala, edo eta mentalitate antiagintari batez egitea, Makhnok Ukrainian egin zuen bezala, boterea «batzarreei» (sobietei) emanez eta ez alderantziz, haiei kenduz, Errusian gertatu zen legez.\*

Txileko azken gobernuak eskuindarren eginkizunetan beti defentsiban jokatu du. Azken denbora hauetan, marinako soldaduek Alderdi Komunistako militanteak detenu eta interrogatu dituzte. Haien zenbait lokal eta lan-tegi ere asaltatuak izan dira harmadaren aldetik. Eta, guztiokiko,\* gobernuak beti jarrera\* defentsibo bat hartu ukan\* du, eta ez da saiatu langileak harmatzen ez eta Herri Milizia bat sortzen. Hirurehun eta hogeit langileren

entrepesa batetan aurkitzen ziren harmak, hauk\* ziren: fusil zahar bat eta lau pistola, eta besteentzat... makila batzuk.

Herri Batasunak, Txilen, konfidantza osoa zedukan harmadarengan, eta berau beti hartzen zuen herritar eta demokratikotzat; eta Batasun horretako zenbait zuzendariaren esaldiak frogatzen ederrak zaizkigu. Alderdi Komunistako idazkari\* jeneralak, Luis Corvalán-ek, esate baterako, honela zioen: «Estatuaren kontrako kolpe emannahi bat egon da... Indar altxatze hori azkarki izan da zapaldua, eskerrak indar harmatuen komandanteen ekintza trebeari eta indar hauen eta beste ordenetako indarren leialtasunari...». Horrela nora joango ziren?

B. BAKAIKOA

diote, **deutsoe**  
ditzakete, **daikenez**  
zaizkigu, **jakuz**

zedukan (zeukan), **eukan**  
zedukaten (zeukaten), **euken**  
zezakeen, **eikean**  
zioen, **inoan**, esaten zuen



**Emakume, gizonezko eta umeen jantziak**

**Oihal, izare eta etxean behar diren  
gainerakoak**

**Bai emakume eta bai gizonezkoentzako  
jantzi aukeratuenak, azken  
modara eginak**

**HURI ZAHARRA**

**"Casco Viejo"**

**BILBO**



**Belaunaldi\* arteko burruka**

Autobusean, adineko\* gizon batek beste bati:

—Gaurko gazteek ez dute gizabiderik.

—Hara! —besteak pixka bat harriturik—. Hala ere, oraintsu gazte batek bere jezarlekua utzi dizu.

—Bai, baina ene emaztea oraino zutik doa hortxe.

\* \* \*

**Kontu berria**

Baserritar batek oso haserre:

—Aizak,\* Txomin! Herenegun saldu hidan zaldia, gaur hil egin ziaidak.

—Hara! Horretaz hauxe esan diezaaket bakar bakarrik: gurean egon zen artean, holakorik sekula ez zuela egin.

\* \* \*

**Helburu ezberdinak**

Hauzoa arrats osoan kitarra jotzen aritu\* da. Halako batetan, atean jotzen diote. Ba doa, eta Martintxo, ondo ko umea, dela dakusa.\*

—Gabon! Zer nahi duzu, Martintxo?

—Amak esan dit, ea zerorren kitarra utziko ote diguzun.

—Zuek ere jo nahi duzue, ala\*?

—Ez, jo ez; lo egin nahi dugu.

\* \* \*

**Ikuspuntuak**

Ezkorrak:\* —Botila hori jadanik\* erdi hutsik dago.

Baikorrak:\* —Botila hori oraindik erdi beteta dago.

\* \* \*


**Oraingo umeok!**

—Oier! —diotso\* izebak\*—. Ikusi nahi duzu, zikoinak ekarri dizun anaiatxo berria?


—Ez! Nahiago dut zikoina bera ikusi.

diezaaket, deiskiat  
diguzu, deuskuzu  
diote, deutsoe

dit, deust  
dizu, deustu  
hidan, heustan  
ziaidak (zait), jatak (jat)



GURUTZEGRAMA (28)




**Ezker aldetik eskuin aldera:** 1. Indartsua, zalua.—2. Txori haundia, haragi ustela jaten duena (alderantziz).—3. Hi, neska, bete... ontziok (alderantziz).—4. Kontsonantea. Zenbakia. Kontsonantea.—5. Aldi adberbioa (alderantziz). Kontsonantea. Etxeko abereek jaten dute.—6. Dударик gabe. Zazpi egunetako unada (artikuluarekin).—7. Bokala. Medikua. Kontsonantea.—8. Maindire, mihise. 9. Buruan dugu.—10. Zein menditatik ikusten da hobekien Arratiako harana?

**Goitik behera:** 1. Hari eta orratzaz batu.—2. Nota musikala. Kontsonantea.—3. Puntu, kardinala. Bokala.—4. Bokala. Ugazaba, jabe, buruzagi. Kontsonantea.—5. Sarrri (alderantziz). Aurpegian dugu (alderantziz).—6. Hi, mutil, nagoen tokitik atera... (alderantziz). Gura.—7. Denbora librea. Mundua inguratzen duen gaza (artikuluarekin).—8. Kontsonantea. Ikasten duena. Kontsonantea.—9. Zuhaitza. Bokala.—10. Letra baten izena. Kontsonantea.—11. Joan zaitez.

**Goitik behera:** 1. Josi.—2. Re. O.—3. Hego. O.—4. A. Nagusi. R.—5. Maiz. Bizar.—6. Nazak. Gale.—7. Asti. A.—8. R. I. Kasle. T.—9. Arte. I.—10. Te. K.—11. Zoaz.

**Ezker aldetik eskuin aldera:** 1. Azkar.—2. Sai. 3. Itzan.—4. J. Hamaita. Z.—5. Gero. N. Arto.—6. Segur. Astea.—7. I. Osagile. Z.—8. Izare.—9. Ile.—10. Gorbaitk.



Zer jotzen du?

EUSKAL SALDA



Goiko koadro horretan 7 ofizioen izenak daude, zuzenean jarrita. Aurkituko ote dituzu? Kontuan hartu behar duzu, goitik behera, behetik gora, eskuinetatik ezkerretara, ezkerretatik eskuinetara, edo eta zeharretara, diagonalen ere, egon daitezkeela, bai eta elkarren artean gurutzaturik ere.



HIEROGLYPHIKOAREN ERANTZUNA:

Bere gitarra

EUSKAL SALDAREN ERANTZUNAK:

Hargina, nekazarria, erroteria, okina, harotza, itzaina, harakina.

# HIZTEGIA

IMANOL BERRIATUAK

## Ale honetan izartto batekin agertzen diren berbak

### A

ABURU, eritzi.  
 ADIN, odade.  
 ADINA, aina, beste, bezainbat, bezainbeste.  
 AGIAN, nonbait, beharbada.  
 AGURAIN, Salvatierra.  
 AHALKE IZAN, tener vergüenza.  
 AHANTZ, olvidar. (AHANTZI, ahantzu, ahaztu, olvidado).  
 AITZITIK, al contrario.  
 AIZAK, adi ezak, adi eik.  
 ALA, o qué?  
 ALDIZ, berriz, ordea, ostera.  
 ALEGIA, a saber, es decir, esto es.  
 ANGELU, Lapurdiko Anglet.  
 ANTZA, dirudienez.  
 APIKA, acaso, tal vez, peut-être.  
 ARABERA, arauera, según, conforme.  
 ARAUERA, arabera, según, conforme.  
 ARE, oraindik, aún, encore.  
 AREAGO, oraindik gehiago.  
 ARITU, ari izan, ihardun.  
 ARRAKASTA, éxito, succès.  
 ARRASATE, Mondragoe.  
 ARRAS, guztiz, zeharo.  
 ARROBADA, 8,98 area lur.  
 ARTZAN, pastoral.  
 ASKI, nahiko.  
 AURRIKUSPEN, prospectiva.  
 AUSART, atrevido, osado.  
 AXOLA, ardura.  
 AZTARREN, aztarna, vestigio.  
 AT, kanpo, landa, fuera.

### B

BA, bada, pues.  
 BAIETZAPEN, afirmación.  
 BAIKOR, optimista.  
 BAITA, bai eta.  
 BARIK, gabe.  
 BATZUK, zenbait. (Betzuek aktibo, batzuk pasibo).  
 BEDEREN, behinik behin, behintzat, gutienez.  
 BEHIN BEHINEKO, provisional.  
 BELAUNALDI, generación.  
 BEREHIL, automóvil.  
 BERJABETASUN, independencia.  
 BERRETSI, ratificado.  
 BESTE, adina (aina), bezainbat.  
 BIDE, aglan, nonbait.  
 BOLADA, unada, tenporada.  
 BORRERO, verdugo, bourreau.  
 BURKIDE, camarada.

### D

DAGOENOKO, dagoen orduko, para chora, tan pronto.  
 DAKARTZATE, dakarrez, ekartzen dituzte.  
 DAKIKE, daki nonbait.  
 DAKUSA, ikusten du.  
 DAKUSAGU, ikusten dugu.  
 DAKUSAT, ikusten dut.  
 DATEKE, da nonbait.  
 DATORKE, dator nonbait.  
 DATZA, consiste, está. (Etzan aditzaren forma).  
 DAZAGUTZAGU, ezagutzen ditugu.  
 DERAUKUSKIGU, darakuskigu, erakusten digu (deusku).

DERAKUSKIGUTE, darakuskigute, erakusten digute (deuskue).  
 DEUS, ezer.  
 DEUSEZTA, ezereza, destruir.  
 DIOTSO, dinotso, esaten dio (deutso).  
 DIRATEKE, dira nonbait.  
 DUKEGU, dugu nonbait.

### E

EGITARAU, programa.  
 EGUTEGI, calendario.  
 EI, omen.  
 EKIALDE, eguzki alde, Este.  
 EKIN, ocuparse, aplicarse. (Aditz hau intransitiboa da).  
 ELABERRI, novela, roman.  
 ENPARADU, restante, demás cosas.  
 ERAKUNDE, entidad, organismo.  
 ERDIETSI, lortu.  
 EREDU, modelo.  
 EROAN, eraman.  
 ERRALDOI, gigante, géant.  
 ESAMESA, erran-merran, habladuría.  
 ESKUTAN, en manos. (ESKUETAN, en las manos).  
 EZEZIK, no solamente.  
 EZKOR, pesimista.

### F

FROGA, prueba, demostración.

### G

GABE, en vez de, en lugar de.  
 GALDEKIZUN, inkesta, encuesta.  
 GALERA, galtze.  
 GANORE, ganora, kanore, seriedad, fundamento, formalidad.  
 GELDO, lento.  
 GERTAKARI, hecho ocurrido. (GERTAKIZUN, hecho por ocurrir).  
 GISA, modu, era; bezala.  
 GURPIL, rueda, roue.  
 GUZTIOKIKO, con relación a todas estas cosas.

### H

HA, hura.  
 HAIK, hareek. Halek (heiek) aktibo, haik (hek) pasibo. (Ikus Lafitteren «Grammaire Basque», 82. horrialdea).  
 HAINA, una persona tal.  
 HAREGAZ, harekin.  
 HASTAPEN, haste, comienzo.  
 HATXEMAN, hatzeman, encontrado, captado.  
 HAUK, honeek. (Hauk aktibo, hauk pasibo).  
 HAZIL, noviembre.  
 HEDATU, zabaldu.  
 HEZIKETA, hezketa, hezkuntza, educación.  
 HORIK, hoik, horreek. (Horiek aktibo, horik pasibo).

### I

HOTS, a saber, es decir, esto es.  
 HURA, ha.  
 IDAZKARI, sekretari.  
 IRAIL, setiembre.  
 IRRISTAKOR, resbaldizo, glissant.  
 ITAUN, galde, galdera.  
 ITAUNDU, galdetu.  
 IZANAHAL, facultad de ser.

IZEBA izeko.  
 IZKUTATZE, ezkutatze, ocultar.  
 IZURRITE, epidemia.

### J

JADANIK, ya.  
 JALGITZE, irtete, ateratze.  
 JARAMON, kasu.  
 JARRERA, postura, actitud.  
 JAZARGO, contradicción.

### K

KAMUTS, amuts, romo.  
 KRITIKA, criticar. (KRITIKATU, criticado).

### L

LAGUN, ayudar. (LAGUNDU, ayudado).  
 Aditz honek akusatiboa eskatzen du.  
 LARREGI, gehiegi, sobera.  
 LAUDIO, lldio.  
 LEGEZ, lez, bezala.

### M

MAIZ, sarri.  
 MENDE, siglo.  
 MENDEBALDE, mendebal alde, occidente, Oeste.

### N

NABARI, evidente, patente.  
 NABARI IZAN, aparecer, saltar a la vista.  
 NORGALTZE, pérdida de personalidad.

### O

OIHARTZUN, eco.  
 OLAGINTZA, lantegintza.  
 ONGISKO, ongi xamar, ondotto.  
 ONTSA, ongi, ondo.  
 ORDEA, aldiz, berriz, ostera.  
 ORHITZIA, orotzea, gomutatzea.  
 OSATU, oso egin, completado, perfeccionado.  
 OSTERA, aldiz, berriz, ordea.  
 OZTA, doi.

### P

POXELATU, obstruido, obstaculizado.

### S

SALKERIA, traición. (SALKETA, venta).  
 SOBERA, gehiegi, lar, larregi.  
 SORO, solo.

### T

TANKERA, estilo.  
 TUTERA, Nafarroako Tudela.

### U

UKAN, izan. (Ukan aktibo, izan pasibo).  
 UKO, negación.  
 UNTXI, conejo, lapin.  
 URDURI, inquieto, preocupado.  
 URRATS, pauso.  
 URTARRIL, enero, janvier.  
 UZTA, cosecha, récolte.

### X

XUME, humilde, sencillo.

### Z

ZALANTZA, vacilación.  
 ZAMA, karga.  
 ZAPUZTU, incomodado.  
 ZEKUSAN, ikusten zuen.  
 ZELAN, nola.  
 ZEREN, ze, pues.  
 ZERGA, impuesto, contribución.  
 ZERITZAKEEN, erizten (eritziko) ziokeen.  
 ZIMIKO, pellizco, pinçure.  
 ZINBILI-ZANBULU, vaivén.  
 ZINDO, sano, firme.  
 ZIPOTZ, terço, testarudo, têtu, entêté.  
 ZIRATEKEEN, ziren nonbait.  
 ZITUZKETEN, zituzten nonbait.  
 ZIZTATU, punzado, piqué.  
 ZORTE, suerte, fortuna, destino.  
 ZURBIL, pálido, pàle.



DANTZATOKI GOXOA Igazdez ta jai egunez: 6 tatik 10.ra  
Astegunez: 7. tatik 10 ra.

**SOINU KOADROFONIKOA**

KAFETEGI **AMALUR** RESTAURANTA

# Zientziaren hastapenak: Egipto

Ez dago batere argi, non eta nola sortu zen gizona. Baina ez da durarik, nonbait eta nolabait sortua izan zela, eta, sortu zenez geroztik, haren adimena handituz joan dela.

Hastapenetan\* gizonak ez zituzketen\* Naturako gertakariak ulertzen, eta ulertzeko ere ez zuketzen ahaleginik egiten. Baina inoizko batetan gertakarien zergatikoak bilatzen hasi zira-tekeen.\* Eta behin sua, eta beste behin gurgila\* asmatu bide\* zuten.

Ez dakigu —eta beharbada ez dugu inoiz jakinen— noiz eta nola hasi zen gizona, gertakarien zergatikoak bilatzen. Baina, hala ere, gu baino milurte batzuk lehenago bizi zirèn gizonen lanak eta bizimodua aztertzeke, ba dugu zenbait aztergai, zenbait aztarren.\* Haitz zuloetan utzitako harmak eta tresnak, ormetan eginiko irudiak, haiek eraikitako piramideak eta jauregiak, eta abar.

## NON SORTU ZEN ZIENTZIA

Aztarren hauk aztertutik, mundualde biren inguruan susmatzen dugu zientziaren sortzea, lau edo bost mila urte Kristoren aurretik: Ekialde\* Urrunean (Txina eta Indiako lurraldeetan) eta Ekialde Hurbilean (Eufrates eta Niloko hibaiondoetan). Ekialde Urruna oso urruti geratzen zaigu, eta beharbada horregatik ez du eragin gehiegirik ukan\* Mendebaldeko\* zibilizazioan. Txina eta Indian Ekialdeko zibilizazioaren sustraiak daudela esan dezakegu, Eufrates eta Niloko hibaiondoetan Mendebaldeko zibilizazioaren erroak daudela esan dezakegun bezala.

Guri gehiago interesatzen zaigulakoan, Mendebaldeko zibilizazioaren zientziaren sortzea aztertuko dugu artikulu honetan. Eta, nondik edo handik hasi behar dugunez, Egiptotik hasiko gara.

## ASTRONOMIA EGIPTO ZAHARREAN

Gezurra badirudi ere, duela bostpasei milurte, egiptotarrek hainbat aurrerapen lortu zuten astronomi arloan, zientzi metodoa erabiliz. Ikus dezagun, zerk bultzatu zituen egiptotarrak, astronomi ikerketak egitera.

Niloko hibaiondoan bizi ziren. Dakigunez, Nilo hibaiaik uholdeak sortzen ditu urtero. Urteko sasoin berdintsu batetan gertatzen diren uholde hauek, garrantzi handia ukan dute beti egiptotarrentzat. Eta, horregatik, nola edo hala igarri nahi zuten uholdeon noiztasuna. Horretarako, astronomi ikerketak egiten hasi ziren. Eta, honela, urtearen luzeera neurtu zuten. Haien kalkuluen arauera,\* urteak 365 egun zituen (hogei eta hamar eguneko hamabi hilabete, eta bost egun sakratu).

Baina, urte astronomikoa 365 egun baino luxeago denez, Niloren uholdea atzeratu egiten zen urtez urte. Bestalde, uholdeak ez ziren guztiz erregularak; eta, horregatik, haien laguntzaz ezin zuten zehazki neurtu urtearen luzeera, oraindik Estatistika ez baitzuten ezagutzen. Beste erloju egokiago bat behar zuten.

Izarren irteeran aurkitu zuten, behar zuten erlojua: erloju astronomikoa.

Biharamunean, aurreko egunean baino lehentxeago jalgitzen\* dira izarrak. Egunsentian, aurreko goizargian ikusi ezin zirèn izar batzuk ikus daitezke. Egiptotarrek, honetaz konturatutik, erloju astronomikoaren orratz bezala, Niloko uholdeetan


agertzen zèn izar bat aukeratu zuten, SOTHIS izenekoa (gaurko Sirio).

Horrela, urte astronomikoaren luzeera  $365\frac{1}{4}$  egun zela aurkitu zuten. Eta azkenik —kalkulu erraz bat eginik ikus daitekeenez— 1.461 urteren buruan izarrak berriro ere leku berberetan agertuko zirela kalkulatu zuten. Mila lauhun eta hirurogei eta bat urteko denboraldi hau SOTHIS ZIKLOA deitu zuten.

Beste astronomo batzuen lanengatik, Kristoren ondoko 139. (ehun eta hogeita hamar) urtean, ziklo berri bat hasi zela dakigu. Ikertu diren aztarrenak kontutan harturik, Kristoren aurretiko 4244. (lau mila berrehun eta berrogei eta laugarren) urtean egiptotarrek beren egutegia\* egina zutela pentsatzen dute ikertzaileek.

## GEOMETRIA ETA INJINADORETZA

Egiptoko geometria oso aurreraturik zegoen. Honen zergatikoa ere Nilo hibaiaeren uholdeetan aurki dezakegu. Urteroko uholdeok soroetako\* seinale guztiak desagiten zituzten, eta berriro soroen planoak egiten hasi behar zuten egiptotarrek. Hau zela eta, geometri problemak aztertzen hasi ziren.



Geometria eta injinadoretzaren fruitu, hor ditugu piramideak. Kristoren aurretiko 2900. urtean guti gorabehera egiten ziren Gizeh-ko Piramide Handia (Keops). Honen oinarria koadro perfektua da, eta aldeak ipar-hegora eta mendebalde-ekialdera zehazki zuzendurik aurkitzen dira. Piramidearen aurpegiek  $51^{\circ}50'$ -ko inklinazioa dute, denek berdina. Harriak bi tonelada eta erdikoak dira (edo ziren); eta hain ondo daude jarriarik, non ezin baita ziri mehe bat ere harri biren artean sartu.

## MEDIKUNTZA

Baina Egipton aurreratuen zegoen zientzia, Medikuntza zen. Kristoren aurretiko 2500. urteko haitz irudi batzuetan, kirurgi operazio bat agertzen da. Eta Ebersko papiri irudietan (1.600 urte K.a.) drogak eta osagarriak nola prestatzen zituzten ikusten da.

J. R. ETXEBARRIA